

8/10

irizpena

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN
Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbo, 2010eko uztailaren 19a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. AURREKARIAK

Ekainaren 17an, Ekonomia eta Ogasun Saileko idazkia heldu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena eskatuz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1. a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurreproiektu horren bidez, lehiaren defentsarako organoak dituzten beste autonomia-erkidegoetan gertatzen den moduan, hemen ere nazioartean hedatuago dagoen antolaketa-eredu bat ezartzeko beharrari erantzun nahi zaió. Eredu horrek organo bakarra izango du, Lehiaren Euskal Agintaritzaren gaiarekin lotutako eginkizun guztiak bere gain burutuko dituena. Lege hori indarrean sartzearen ondorioz, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua desagertuko dira, eta horien eskumenak Lehiaren Euskal Batzordearen eta Ikerketarako Zuzendaritzaren esku geratuko dira, Lehiaren Euskal Agintaritzaren mendeko erakundeak biak.

Berehalaxe, Batzordearen Osoko Bilkuraren kide guztiei bidali zitzairen agiriaren kopia euren erantzunak eta iritzia bidal zitzaizkien, eta ondoren, zegokion Lan Batzordeari helarazi zitzaizkion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Jarduera Araudian xedatutakoari jarraiki.

Ekonomia Garapenerako Batzordea 2010eko uztailaren 6an bildu zen irizpen aurreproiektuaren lehen proposamena eztabaidatzeko asmoz. Egun horretan bertan honako irizpen proiektu hau onartu zen, eta uztailaren 19an Euskadiko EGABaren Osoko Bilkuran aurkeztu da eta aho batez onartu da.

II. EDUKIA

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen Aurreproiektuaren testuak zioen azalpena, hogeita bederatzi artikulua dituzten bost kapitulu, bost xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu, honako edukiarekin:

Zioen Azalpena

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Lehiaren Euskal Agintaritzza
2. artikulua. Helburuak
3. artikulua. Eskumenak
4. artikulua. Lehiaren Euskal Agintaritzak emandako egintzen erregimen juridikoa

II. Kapitulua. Antolamendua

5. artikulua. Lehiaren Euskal Agintaritzaren organoak
6. artikulua. Presidentea
7. artikulua. Presidentearen eginkizunak
8. artikulua. Lehiaren Euskal Batzordea
9. artikulua. Lehiaren Euskal Batzordearen eginkizunak
10. artikulua. Lehiaren Euskal Batzordearen erabakien erregimena eta funtzionamendua
11. artikulua. Ikerketarako Zuzendaritza
12. artikulua. Ikerketarako Zuzendaritzaren eginkizunak
13. artikulua. Idazkaritza Nagusia
14. artikulua. Idazkaritza Nagusiaren eginkizunak

III. Kapitulua. Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardueraren gardentasuna

15. artikulua. Jardueren publizitatea
16. artikulua. Jardueren memoria.
17. artikulua. Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkeztea

IV. kapitulua. Ekonomia, Kontabilitate, Kontratazio, Langile eta Ondare Araubidea

18. artikulua. Baliabide ekonomikoak
19. artikulua. Aurrekontu eta kontabilitate araubidea
20. artikulua. Kontrol araubidea
21. artikulua. Kontratazioa
22. artikulua. Langileak
23. artikulua. Ondarea

V. kapitulua. Beste xedapen batzuk

24. artikulua. Hitzarmenak
25. artikulua. Lankidetzak jurisdikzio organoekin
26. artikulua. Lankidetzak sektoreko arautzaileekin

27. artikulua. Laguntzeko betebeharra

28. artikulua. Sekretua gordetzeko betebeharra

29. artikulua. Ikuskapen ahalmenak

Xedapen gehigarriak

Lehena. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua desagertzea

Bigarrena. Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardueren hasiera

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkarien izendapena Batzorde Aholku Emailean gatazken inguruko gaietarako.

Laugarrena. Ordezko araubidea

Bosgarrena. Karguan jarraitzea

Xedapen iragankorra

Xedapen indargabetzailea

Azken xedapenak

Lehena. Lehiaren Euskal Agintaritzaren Estatutua

Bigarrena. Urriaren 20ko 568/2009 Dekretuaren aldaketa. Horren bidez, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta eginkizunak zehazten dira

Hirugarrena. Indarrean jartzea

Zioen Azalpena

Lehia askea merkatuaren ekonomian funtsezko printzipioa dela eta demokrazia modernoan ordenamendu juridikoetan aintzatespen berezia duela azaltzen da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 119. artikulua eta Espainiako Konstituzioaren 38. artikulua adierazten duten moduan.

Hala ere, kontu horrek arazoak sortu ditu, izan ere, gai horren inguruko eskumenak estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatuta daude. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak eta Kataluniako Generalitateko Kontseilu Betearazleak konstituzio-kontrakotasuneko helegite bana aurkeztu zuten Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legearen hainbat artikuluren aurka; eta 1999ko azaroaren 11ko Auzitegi Konstituzionalaren epaiaren arabera, barne merkataritzan eskumena duten autonomia-erkidegoen esku dago (EAE adibidez, Autonomia Estatutuaren 10.27. artikuluari jarraiki) lehiaren jokabide murriztaileei buruzko egin-

kizun betearazleak gauzatzea, kontzentrazio ekonomikoen kontrola eta lehiaren eragina izan dezaketen laguntza publikoen kontrola izan ezik.

Epai horren ondorioz, estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legea eman zen, 16/1989 Estatuko Legeak xedatutako estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumen betearazleak zehaztu eta murrizteko helburuarekin; gainera, gaian eskumena zuten autonomia-erkidegoetan, lehiaren babeserako organoak sortuko zirela ezarri zen.

Gure erkidegoak organo horiek izan zituen, lehen aldiz, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen (estatu mailako Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren homologoa) eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua promulgatzean. Eginkizun horiek Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia Zuzendaritzari esleitu zitzaizkion.

Bestalde, 16/1989 Estatuko Legea Lehiaren Defentsarako uztailearen 3ko 15/2007 Estatuko Legeak indargabetu zuen. Azken horretan oinarrituz, lehiaren defentsarako estatuko antolamendu-egitura erabat aldatu zen, organismo bakarra sortu baitzen, Lehiaren Batzorde Nazionala hain zuzen, izapideak bideratu eta ebazpenak emateaz arduratuko zena. Hori dela eta, lehenengo Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren eskumenak Ikerketarako Zuzendaritzaren eta Batzordearen eskuetan geratu ziren, Batzorde Nazionalaren mendeko erakundeak biak.

Lege horrek egindako aldaketak zirela-eta, 81/2005 Dekretua ere aldatu behar izan zen, eta horren ondorioz, Lehiaren Babeseko Euskal Auzitegia sortu eta EAEn Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak ezarri zituen dekretua aldatzeko martxoaren 4ko 36/2008 Dekretua onartu zen. Dekretu horrek ez zuen antolamendu-egitura bateratua hartu. Hala ere, esperientziak erakutsi digu unea heldu dela EAEk, lege moduko arau honen bidez, nazioartean hedatuen dagoen antolamendu-eredua har dezan, hau da, organo bakarreko eredua, Lehiaren Euskal Agintaritzan, gaiarekin lotutako eginkizun guztiak bere gain burutuko dituen.

Xedapenak

Lehenengo kapitulua lehenengo bost artikuluek osatzen dute, eta bertan **xedapen orokorrak** bilduta daude:

Horrela, **1. artikulua** Lehiaren Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean LEA) izaera juridikoa arautzen du; horren arabera, Eusko Jaurlaritzan lehiaren defentsan eta politika ekonomikoan eskumena duen sailari atxikitako izaera administratiboko organismo autonomotzat jotzen da, berezko izaera juridikoa dauka eta baita bere eginkizunak betetzeko erabateko jardute-ahalmena ere. **2. artikulua** LEAren helburua jorratzen du, hau da, merkatuan gardentasuna eta lehia askea izateko baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea. **3. artikulua** eskumenak zehazten dira. Ildo horri jarraiki, lehiaren aurkako jokabideak erreprimitu eta lehia sustatzeaz gain, 15/2007 Legeak egin zuen moduan, eskumena duen jurisdikzioaren aurrean administrazio-zuzenbideari lotutako EAEko autonomia, foru -zergari buruzko foru arauak izan ezik, argitaratu berri den Konstituzio Auzitegiari buruzko eta Botere Judizialaren lege organikoak aldatzeari buruzko otsailaren 19ko 1/2010 Lege Organikoarekin bat eginik- eta toki mailako administrazio publikoen egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkatzeko aukera gaineratu da, betiere, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztopoak jartzen baldin bazaizkio. Bestalde, **4. kapituluan**, LEAk emandako egintzen araubide juridikoa arautzen da.

Bigarren kapitulua, 5. artikulutik 14. erainokoak biltzen dituena, LEAren **antolamenduaz** ari da, eta hiru organoko egitura ezartzen du:

- Presidentea (pertsone bakarreko organoa, LEA zuzendu eta ordezkatzeaz arduratzen dena eta, era berean, Lehiaren Euskal Batzordearen buru dena);
- Lehiaren Euskal Batzordea (promozioak, ebazpenak eta irizpenak bideratzen dituen kide anitzeko organoa; buru den presidenteak, erabateko dedikazioa ez duten bi kidek eta hitza bai baina botorik ez duen idazkariak osatzen dute);
- Ikerketarako Zuzendaritzak (izapideak egiteko eginkizunarekin).

Gainera, Idazkaritza Orokorra ere sortu zen, erakundearen laguntza material, administratibo eta tekniko eskaintzeko eta aholku juridikoak emateko organo gisa.

Erabakiak hartzerakoan independentzia izango delako berme gisa, presidentea, Lehiaren Euskal Batzordearen bi kideak eta Ikerketarako zuzendaria Eusko Jaurlaritzak izendatuko dituela adostu da, berriro ezineko sei urteko eperako (beraz, legealdi bat baino epe luzeagorako), politika ekonomikoa eta lehiaren defentsaren arduradunak proposatuta, eta euren eginkizunak legean bertan zehaztutako zergatiengatik bakarrik eten daiteke.

8/10*j*

Hirugarren kapituluak (15. artikulutik 17.era) Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardueraren gardentasunari buruz dihardu, eta emandako ebazpenak barreiatzeko, urteroko jardueren memoria bat gauzatzeko eta Eusko Jaurlaritzari horren berri emateko beharra ezartzen du.

Laugarren kapituluak (18. artikulutik 23.era) araubide ekonomikoa ezartzen du (hau da, LEAk bere helburuak betetzeko izango dituen baliabide ekonomikoak) eta **kontabilitate, kontratazio, langile eta ondare araubidea**, erakunde publiko autonomoak arautzen dituzten printzipioei jarraiki.

Bosgarren kapituluak beste xedapen batzuk arautzen ditu. Hain zuzen ere: LEAren ahalmena beste edozein erakunde publiko edo pribaturekin hitzarmenak egiteko (**24. artikulua**); lehiaren jokabide murriztaileen araudiaren aplikazioari dagozkion gaiet buruzko jurisdikzio organoekin lankidetzan aritzeko (**25. artikulua**), bai eta sektoreko arautzaileekin interes komunekoa gaien inguruan aritzeko ere (**26. artikulua**); pertsona orok, naturala edo juridikoa izanda ere, autoritatearekin lankidetzan aritzeko duen betebeharra (**27. artikulua**); zehapen-espedienteak ireki, bideratu eta ebazten parte hartzen duten pertsona guztiek sekretua gordetzeko duen betebeharra (**28. artikulua**); Ikerketarako zuzendariak behar bezala baimendutako autoritatearen langileak ikuskatzeko ahalmena (**29. artikulua**).

Lehenengo xedapen gehigarriak xedatzen duenez, lege hori indarrean sartzean Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua desagertuko dira; eta lege hori indarrean sartzean Lehiaren Defentsarako Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan lan egiten duten EAEko Administrazio Nagusiko funtzionarioak LEAn sartuko dira, horretarako onetsiko den lanpostuei dagokienez zehazten den moduan. **Bigarrenak** aipatzen du LEA eratuta egongo dela lege hau indarrean sartzerakoan, eta iraungitako Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi eta Zerbitzuaren eskubide eta betebeharretan subrogatuko dela. **Hirugarrenaren** bidez, politika ekonomikoan eta lehiaren defentsan eskumena duen batzordekideak, Lehiaren Defentsarako Euskal Batzordeak eskatuta, gatazkei dagokienez Batzorde Aholku Emailaren EAEko ordezkariak izendatzeko eskumena izango du. **Laugarrenak** xedatzen duenez, legean adierazten ez den guztirako EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeak eta horien finantza publikoak erregulatzen dituen araudiak ezarritakoa aplikatuko da. **Bosgarrena** lanean jarraituko diren lanpostuei buruz mintzatzen da.

8/10 

Xedapen iragankorrak ezartzen duenaren arabera, lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurak izapidetzean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari egindako aipamenak Lehiaren Euskal Batzordeari eta Ikerketarako Zuzendaritzari egindako aipamentzat joko dira, hurrenez hurren.

Xedapen indargabetzaileak lege honen aurka doan arau oro indargabetzen ditu, bereziki, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua eta hori aldatzen duen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretua.

Lehen azken xedapenak LEAren estatutua onartzeko epea finkatzen du; **bigarrenak** Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta eginkizunak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuaren aldaketa; eta **hirugarrenak** legea indarrean sartzeari buruz dihardu.

III. GOGOETAK

GOGOETAK OROKORRAK

EAEk, Autonomia Estatutuaren 10.27. artikulua eta Auzitegi Konstituzionalaren 1999ko azaroaren 11ko epaiaren bidez, lehiaren jokabide murriztaileei buruzko funtzio betearazleak gauza ditzake (kontzentrazio ekonomikoen kontrola eta lehian eragina izan dezaketen laguntza publikoen kontrola izan ezik), eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen (estatu mailako Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren homologoa) eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak EAEn izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua promulgatzean, lehiaren defentsarako organoak lortu zituen lehen aldiz. Dekretu hori martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuen, 15/2007 Legeak egindako aldaketak zirela eta.

Hala ere, eta 15/2007 Estatuko Legeak lehiaren defentsarako estatuko antolamendu-egitura erabat aldatu bazuen ere, erakunde bakarra eratu baitzuen, Lehiaren Batzorde Nazionala hain zuzen, 36/2008 Dekretuak ez zuen hartu antolamendu-egitura bateratua.

Euskal erakundeak 2005. urtean sortu zirenetik lortu dugun esperientziari eta esperientzia parekatuari esker ikusi dugu unea heldu dela EAEk, lehiaren defentsarako organoak dituzten beste autonomia-erkidegoek egin duten moduan, nazioartean hedatuen dagoen antolamendu-eredua har dezan.

Horregatik guztiarengatik, Euskal EGABak ontzat jo du Ekonomia eta Ogasun Sailaren ekimena, antolamendu-egitura bateratua sortzera daramana, Lehiaren Euskal Agintaritza sortzera hain zuzen, izan ere, erakunde esparru sendoa eskainiko zaio lehia sustatu eta defendatzeko eremuan eginkizun zerranda luzea gara dezan.

Hala ere, batzorde honek beharrezkotzat jotzen du hainbat ohar egitea:

1. Legearen aurreproiektuaren hainbat artikulua (3.2.b. art. edota 3.2.c. art) irakurtzean, zerbitzu publikoen hornikuntza edo ezarpenaren beharra zalantzan jar daitekeenez,

3.2.b) artikulua

Lehia sustatzearen eremuan, agintaritzak sektoreei buruzko txosten orokorrak egingo ditu, dagokionean, arauak aldatzeko, liberalizatzeko edo desregulatzeko proposamenekin

3.2.c. Artikulua

Lehia sustatzearen eremuan, agintaritzak sektore publikoaren jarduerari buruzko txostenak egingo ditu eta, zehazki, legezko arauak aplikatuzetik sortzen diren merkatuetan lehia eraginkorra mantentzeko oztopoak jartzen dituzten egoerei buruzkoak.

Komenigarria liteke legeak, hitzaurrean edo zioen azalpenean, Ongizate Estatu batean zerbitzu publikoak izateko dagoen beharraren aipamen bat gaineratzea; horri esker, gainera, Lehiaren Euskal Agintaritza ez litza-teke joko zerbitzu horiek liberalizatzeko presiozko organotzat.

2. Gure Erkidegoan antzeman daitezkeen bikoiztasun administratiboetan izan ditugun esperientziak ikusita, organo aholku-emaille honek uste du aintzat hartzekoa litekeela, hitzaurrean edo zioen azalpenean, arau horrek dakarren antolamendu-egituraren unitatearen aipamen bat egitea.
3. Lege Aurreproiektuan Ikerketarako Zuzendaritzaren eta Idazkaritza Nagusiaren hedadurari buruz ezer esaten ez dela kontuan hartuta, legeak xedatzen dituen organo eta zerbitzuetarako giza baliabideak eta baliabide materialak era egokian eskainiko direla bermatu beharko lukeela uste dugu.

BERARIAZKO GOGOETAK

Zien azalpena

Zioen azalpenaren laugarren paragrafoak zera dio:

- "Merkatuetan lehia eraginkorra egoteak, enpresa guztien jokabideak diziplinatzen du eta produkzioaren eraginkortasuna bermatzen du; horri esker, merkaturatutako produktuen kopurua, kalitatea eta aniztasuna handitu edo horien prezioak murrizten dira, eta ondorioz, gizartearen ongizatea areagotzen da."

Batzorde honek, eraginkortasuna lortzeko bideak ez mugatzearen, aipatutako paragrafoa aldatzea gomendatzen du ondoren aipatzen den moduan, hau da, letra lodian dagoena gaineratuz eta marratu bikoitza ezabatuz:

*“Merkatuetan lehia eraginkorra egoteak, **enpresa agente ekonomiko** guztien jokabidea diziplinatu behar du eta produkzioaren eraginkortasuna **hobea** bermatuz ~~du; horri esker, merkaturatutako produktuen kopurua, kalitatea eta aniztasuna handitu edo horien prezioak murrizten dira, eta ondorioz, gizartearen ongizatea areagotzen da.~~”*

8/10*j*

3. artikuluari buruz. Eskumenak. 1. puntua.

Lehiaren defentsaren esparruan agintaritzak dituen eskumenen artean, aurreproiektuak zera dio:

“...b) isun hertsatzaileak ezartzea ebazpenetan ezarritako beharrei dagokienez, eta lankidetzarako beharra ez betetzeagatik,...

d) isunak ordaintzetik salbuestea edo horien zenbatekoak murriztea...”

Organo aholku-emaile honek beharrezkotzat jotzen du d) letran ezarritako eskumena modu argian arautzea, erabaki arbitrariorik hartu ez dadin. Zehazki, eskumena aplikatu daitezkeen arrazoiak edo neurriak agerian adieraztea eskatzen dugu, erabilera diskrezionala ekiditeko.

3. artikuluari buruz. Eskumenak. 2. puntua

3. artikuluko horren 3. puntuak Lehiaren Euskal Agintaritzari eskumena duen jurisdikzioaren aurrean administrazio-zuzenbideari lotutako Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia, foru -zergari buruzko foru arauak izan ezik- eta toki mailako administrazio publikoen egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkatzeko aukera ematen diola kon-tuan hartuta, betiere, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztopoak jartzen baldin bazaizkio, batzorde honek egokitzen du lehia sustatze-

ko eremuan agintaritzaren eskumenei dagozkien hainbat alor hobetzea, bere jarduerak mugatu ez daitezen. Hain zuzen ere:

*“...b) sektoreei buruzko txosten orokorrak egitea, ~~dagokio-
nean, arauak aldatzeko, liberalizatzeko edo desregulatzeko
proposamenekin, lehia eraginkorra zuzentzen edo hobetzen
lagun dezaten.~~*

c) sektore publikoaren jarduerari buruzko txostenak egitea eta, zehazki, ~~legezko arauak aplikatetik sortzen diren merkatuetan lehia eraginkorra mantentzeko oztopoak jartzen dituzten egoerei buruzkoak.~~

*e) Administrazio Publikoak proposamenak zuzentzea, ~~bere jardueratik sortutako lehia eraginkorraren murrizketak eta, dagokionean, baita merkatuetan lehia mantentzera edo berrezartzera daramaten~~**ak** ~~gainontzeko neurriak ere aldatzeko edo kentzeko...~~”*

3. artikuluari buruz. Eskumenak. 4. puntua

Koherentzia arrazoiak direla eta, “enpresa-erakundeak, sindikatuak edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak” jarri ordez “eta enpresen, sindikatuen, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak” adierazi beharko zela uste dugu.

*“Lehiaren Euskal Agintaritza organo aholku-emaile gisa jardungo du lehiaren defentsari buruzko gaietan Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Zehazki, Eusko Legebiltzarrrak, Eusko Jaurilaritzak, Batzar Nagusiek, Foru Aldundiek, Udalek, Lanbide-elkargoek eta Merkataritza Ganberak, ~~enpresa-erakundeak, sindikatuak edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak.~~ **eta enpresen, sindikatuen, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak,** lehiari dagozkion aholkuak eskatu ahalko dizkiote.*

3. artikuluari buruz. Eskumenak. 6. puntua

Euskadiko EGABak egokitzen du aipatu irizpenaren izaera zehaztea (adibidez: loteslea edo ez), bai eta haren irizpidea ere. Ildo horri jarraiki, faltan botatzen dugu Lehiaren Batzorde Nazionalak haren web orriari gaineratu duen moduko zerrenda, “Glosarioa” hain zuzen ere, honelako zerrenda biltzen duena: jarrera nagusikeria, ekintza desleialak, debekatutako akordioak, hastea, kartel...

Izaera horizontaleko gogoeta zehatza

Bidezkoa den neurrian, beharrezkotzat jotzen dugu **Presidentea** esan ordez **Presidentetza** erabiltzea.

8/10 *i*

IV. ONDORIOA

Euskal EGABak egokitzen du Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen Aurreproiektua izapidetzea, organo aholku-emaile honek egindako gogoetak kontuan hartuta.

Billbon, 2010eko uztailaren 19an

O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia

www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-2086-2010